

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 1.025 plaza berri eskaintzen ditu langabeentzat bereziki diren 63 ikastarotan

Abuztuan eskainitako 1.971 plazei erantsi behar zaizkie, eta izena emateko epea astearte honetan zabalduko da

Lunes, 31 de agosto de 2015

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) astearte honetatik aurrera, irailak 1, enplegurako [63 prestakuntza-ikastaro berri](#) eskainiko ditu. Langabeentzat dira bereziki, 1.025 plaza osagarriekin, eta abuztuaren 4an eskainitako 104 ikastaro eta 1.971 plazak osatzen dituzte. Prestakuntzako eskaintza horri beste 900 plaza berri gehitu behar zaizkie erkidegoko hizkuntzetan trebatzeko, "online plataforma"-n.



NEZak 1.025 plaza berri eskaintzen ditu langabeentzako ikastaroetan.

300.000 euroko aurrekontua duten ikastaro horien helburu nagusiak langileak birziklatu eta kualifikatzea da prestakuntzako ekintzen bidez (profesionaltasun-ziurtasunetakoak batzuk), eta baita beren enplegugarritasuna zabalduko duten beste modalitate osagarri eta instrumental batzuk eskaintzea ere.

Ikastaro horietan guztietan izena emateko Enplegu Atarira jo daiteke online (www.empleo.navarra.es) edo aurrez aurre [Enplegu Agentzietan](#) eta [prestakuntza-zentroetan](#). Interesdunak ikastaro bakoitzean sartzeko baldintzak egiaztatzen dituztenean bakarrik matrikulatu ahalko dira, eta bakoitzaren informazio osoa Enplegu Atarian kontsulta daiteke. Gainera, ikastaroen eskaintza-integratzailearen bidez (www.formaccion.info) gaur egun dagoen eskaintza guztia kontsulta eta azter daiteke. Gaur aurkezten den ikastaro-sorta honi oraindik plazak dituzten edota eskaintzaren integratzaile honetakoak erantsi behar zaizkio, finantzaketa publikoko beste iturri batzuen bidez.

Ikastaroen katalogo berri honek diru-laguntzak ematen ditu ikasleek ikastaroetan parte hartzeko joan-etorrietan egin beharreko kilometroak eta izan daitezkeen dietak ordaintzeko. Alderdi hori Espainia mailan araututa dago eta, beraz, sortutako eskubideak frogatuta egon behar dira interesdunaren ezaugarrien arabera.

IKT tresnen tailerrak eta enpresen kudeaketa Iturrondo zentroan

63 ikastaroetatik, 41 NEZko zentroetan bertan egiten dira, 4 CENIFERen eta 37 Iturrongo prestakuntza-zentroan; 603 plaza, guztira, eta hizkuntzen 900i gehituz, 1.503 dira. Iturrondo prestakuntza-zentroan 37 ikastaro eskaintzen dira, eta haien artean IKTen tresna-tailerrak daude; trebeziak garatzen lagundu nahi dute eta, haiei esker, interesdunek jadanik badituzten beste gaitasun batzuen gaitasun osagarriak lortu ahalko dituzte.

Enpresen kudeaketari lotutako ikastaroak ere eskaintzen dira (nominak, kontabilitatea, proiektuen plangintza, ISO kalitatearenak...). Haiei online bidezko hizkuntzen prestakuntza gehitu behar zaie (aleman, euskara, frantses eta ingeleseko ikastaroak) hizkuntzen beren ezagutzak ikasi edo sendotu nahi dituzten 900 ikaslerentzat.

Iturrondo zentroan eskainitako ikastaroek, NEZkoa dena, gero eta kutsu praktikoagoa dute, "learning by doing" (egiten ikasi) izeneko metodologia sartuta, proiektuen arabera ikasketa-metodologiarekin batera. Adibide modura, ekitaldien antolakuntza ikastaroa azpimarratu behar da, eta bi metodologia horiek erabiliz, Pamplona Innovation Week-ekin lankidetzan garatuko da. Hala, irailaren 22tik 25erako astean berrikuntza eta ekintzailatzako simposio bat egiten da Baluartean, eta bertan Espainiako nahiz nazioarteko adituek eta erreferentziak parte hartzen dute. Testuinguru horretan, zenbait metodologia eta proiektu berritzaileen tailerrak egin eta martxan jarri nahi dira. Jardunaldi horien prestakuntza nahiz egiten diren tarte bera ere baliatuko dira ekitaldiak antolatzeko ikastaro hori era praktiko batean emateko.

CENIFERen, Espainia-mailan erreferentziazkotzat katalogatutako zentroan, energia eta eraginkortasuneko espezializazioaz arituko dira, beste prestakuntza-mota batzuen osagarriak direnak. 2015eko azken aldi horretarako, tresna zehatzen 4 ikastaro berri eskaintzen dira.